

Lamia zuzena

Orain urte asko ama-semeak elkarrekin bizi ziren baserrian. Behin mutila mendira joan eta betiko desagertu zen. Ama etzen baserrian lan egiteko gai eta herriz herri eskean hasi zen bizirik irauteko.

Garai beretsuan bihotz oneko lamia batek jostorrazak gordetzeko orratz-ontzi bat galdu zuen. Biguna zen eta urrezko eta zilarrezko jostorrazak zituen bertan sartuta. Eskean zebilen emakumeak, hau da, amak orratz-ontzi hura aurkitu zuen:

- "Ze ederra! Zer egingo dut, saldu? Ez, hobe ez, lapurtutakoa dela pentsatuko dute eta" eta poltsikoan sartu zuen.

Handik egun batzuetara josten ari zen emakume batek orratz bat eskatu zion eta amak eman. Hurrengo batean beste batek eta beranduago beste batek, eta ama-eskaleak guztiei ematen zien bana. Orratz barik geratu zenean, orratz-ontzia hitzegiten hasi zitzaion: "Estutu nazazu limoia banintz bezala eta eskatu behar duzuna". Harrigarria! Bizitzeko adina diru eskatzekotan zegoela, andre bat hurbildu zitzaion negar batean.

- "Ai, dohakabea ni, sorgin gaizto batek alaba bahitu dit eta mendi barnera eraman du".

- "Egon lasai"--esan zion ama-eskaleak-- "neuk lagunduko dizut"

Belaki miragarria estutu eta mailu bat atera zen ezerezetik. Mailuaz haitza jo eta sorgin baten kobazuloa agertu zen. Alaba bahituaren amak, orduan, negarrari utzi eta irribarre egin zuen:

- "Bihotz onekoa zara. Eskerrik asko niri laguntzen saiatzeagatik. Begira zer dagoen hor barruan".

Kobaren barruan ama-eskalearen semea zegoen.

- "Seme, nire semea! Eskerrik asko anderea. Baina. Nor zara zu, sorgina?"

- "Ez. Ni ez naiz zure semea bahitu zuen sorgin gaiztoa. Ni, orratz ontzi magiko horren jabea nauzu"

Lamia zen! Lamia ona, orratz-ontzia galdu zuena. Shhh, ixilik! Lamiak hitz egiten jarraitu zuen eta:

- "Ikusten duzu etxe eder hori? Zuretzat opari. Ikuilura joan eta estutu orratz-ontzia azkenengoz".

Berrogeita hamar ardi eta beste berrogeita hamar ahuntz agertu ziren ezerezetik. Ama-semeak lasai eta zoriontsu bizi izan ziren baserri hartan.

